

3. IKASGAIA. BALTZUEN ZUZENBIDEA

KAPITALEZKO BALTZUAK

1. KAPITALEZKO BALTZUAK DEFINITZEN DITUZTEN ELEMENTUAK

1.1. Kapitalezko baltzuak: motak eta ezaugarri orokorrak

1.2. Kapitala eta bere arazoak

- a) Kontzeptua
- b) Funtzioak
- c) Printzipio ordenatzaileak

1.3. Antolakuntza korporatiboa

1.4. Inskripzio eratzailea

2. KAPITALEZKO BALTZUEN ERAKETA

2.1. Eraketa sistema bikoitza

2.2. Eskrituraren edukia

2.3. Eraketan dagoen baltzua eta baltzu irregularra

2.4. Baltzuaren deuseztasuna

2.5. Ekarpinak

- * Diruzko ekarkinak
- * Ez-diruzko ekarkinak

2.6. Erantsitako prestazioak

1. KAPITALEZKO BALTZUAK DEFINITZEN DITUZTEN ELEMENTUAK

1.1. Kapitalezko baltzuak: motak eta ezaugarri orokorrak.

Kapitalezko baltzuen izenburupean merkataritzako hiru baltzuri egiten zaio erreferentzia (Kapitalezko Baltzuen Legea 1.1. art.): *baltzu anonimoa, erantzukizun mugatuko baltzua eta akzioengatiko baltzu komanditarioa*. Ikasgai honetan lehenengo biak aztertuko ditugu trafikoan gehien erabiltzen direnak direlako.

Aipatutako baltzu bakoitzak bere ezaugarri propioak baditu ere guztiak batera izaera pertsonalisteko baltzuengandik bereizten dituzten ezaugarri amankomunak (KBL 1.2./1.3./1.4 art.) dituzte.

Lehenengoa beraien *egitura korporatiboa* da. Izan ere, izaera honetako baltzuetan bazkideen baldintza pertsonalek ez dute garrantzirik, hauek baltzura egiten duten ekarpenak baizik.

Bestalde, kapitalezko baltzu guztiek daukate euren *kapitala zati proportzionaletan banatua*. Zati hauek euren titularrei bazkidearen izaera aitortzen diete. Baltzuaren arabera izen desberdina izango du zati horrek: akzioa (anonimoan eta komanditarioan) edo partizipazio soziala (erantzukizun mugatuko baltzuan).

Kapitalezko baltzu guztien bazkideek *erantzukizun mugatua* daukate. Hau da, bazkideak kapital sozialari dagokion zati proportzionala jartzeko obligazioa dauka baina ez du inongo erantzukizunik izango zor sozialengatik. Hortaz, baltzuaren hartzekodunek ezingo dute bazkideen aurka joan beraien kredituak kobratzeko. Modu honetan, bazkideek baltzuan eginiko ekarpenaren bitartez jarritakoa baino ez dute arriskatzen.

Ezaugarri amankomunekin amaituz, present izan behar da kapitalezko baltzuak *merkataritzako baltzuak* direla euren objetua edozein izanik ere, aukeratuko formagatik (KBL 2.art.).

1.2. Kapitala eta bere arazoak

a) Kontzeptua

Aurreko atalean aipatutako ezaugarriak kontuan hartuz, eta deiturak berak adierazten duen bezala, esan daiteke kapitalezko baltzuetan kapitalaren instituzioa dela baltzuaren funtzionamendua antolatzen duena.

Baltzu guztiak kapital zehatz batekin eratzen dira. Kapital hau printzipioz libreki (legeak ezartzen dituen minimoak errespetatuz) zehazten da fundatzaileen aratean eta beharrezkoa izaten da eraketa eskrituran eta estatutuetan agertzea.

Kapital soziala baltzuari, eratzeko unean, esleitzen zaion fondo bat dela esan genezake zeina bazkideen ekarpenez osatzen den eta diru kopuru batez adierazten den.

Kapital sozialaz hitz egiten denean, baltzuak momentu oro igortzen dituen akzio edo partizipazioen balore nominalen batuketari egiten zaio erreferentzia (kategoria juridikoa).

Puntu honetan beharrezkoa da argitzea ezin direla nahastu baltzu kapitalisten *kapitala eta ondare soziala* kontzeptuak.

Ondareaz hitz egitean pertsona juridikoaren ondasun eta eskubide multzoari egiten zaio erreferentzia (balantzaren aktikoari). Kapitalak bazkideek egindako inbertsioa adierazten digu (balantzean pasibo eta ondare netoaren lehen postuari).

Oro har, baltzuak eratzten direnean kapitala eta ondarea bat datoz. Baina, behin baltzuak bere jarduera ekonomikoa hasten duenean ondarea aldatzen hasten da kapitala finko mantentzen den bitartean. Baltzuaren gorabeherak eragin zuzena dute ondarearen gain positiboki (irabaziak badaude) edo negatiboki (galerak badaude), baina, gorabehera horiek ez dute eraginik kapitalarengan hau soilik estatutuen aldaketa batekin aldatu bait daiteke (ekarpen berriak eginaz edo ekarpenak itzuliaz, printzipioz, horretaz gain legez murriztu beharko da galera kopuru batera irixtean).

Kapitalaren eta ondarearen arteko harremanak eragin zuzena dauka baltzuaren egoera ekonomikoarengan. Ondarearen baloreak kapitalaren zifra gailentzen duen unean baltzuaren egoera ekonomikoa egonkorra dela esan daiteke aldiz, kontrako egoerak esan nahi du galerek bazkideek egindako inbertsioa kontsumitu dutela. Azken egoera honi begira, legeak dio baltzua desegin beharko dela galera horiek ondare netoa kapitalaren erdia baino maila beherago batean uzten badute (363.1.d art.).

b) Funtzioak

Aipatu dugu kapitalaren instituzioak duen garrantzia aztertzen ari geran baltzu hauetan. Hiru dira betetzen dituen funtzioak:

- Ustiapen fondo bat osatzen du. Bazkideek helburu bat lortzeko eratzten dute kapitalezko baltzu bat, irabaziak eduki eta beraien artean banantzeko. Horretarako jarduera ekonomiko bat ustiatzen dute eta, noski, hau martxan jartzeko baliabide ekonomiko batzuk behar dira. Bazkideek egiten dituzten ekarpenak, kapitala osatzen dutenak, beharrezkoak diren inbertsioa horiek egiteko erabiltzen dira (eraikinak erosi edo alokatu, instalazioak ezarri, lehengaiak erosi, e.a).
- Bigarren funtzioa berme funtzioa da. Esan dugu kapitalezko baltzuetan bazkideek ez dutela baltzuaren zorretaz erantzuten. Baltzuaren hartzekodunek baltzuaren ondare osoa dute beraien esku dituzten kredituak asetzeko, baina baltzua da erantzule bakarra. Kapitalaren eraentzak gutxienezko ondare bat atxikitzen du baltzura, bazkideek beraien artean banatu ezin duten ondare kopuru bat eta hori murrizten denean galerak daudelako, garaizko desegitea galdatzen du, hartzekodunen eskubideak babesteko nahian.
- Azkenik, kapitalak antolaketa funtzio garrantzitsu bat ere badu, izan ere, baltzuetako bazkideek egiten dituzten ekarpenen arabera eta horien balorearen arabera banatuko baitira bazkideek izango dituzten eskubideak (bai ekonomikoak eta bai politikoak ere).

c) Printzipio ordenatzaileak

Kapitari buruzko arau asko jasotzen da Legean, aipaturiko funtzio horiek betetzera zuzendurikoak. Doktrinak kapitalaren printzipio ordenatzaile batzuetan jaso eta klasifikatzen ditu. Hauek dira printzipio horiek:

1- *Gutxieneko kapitalaren printzipioa*: (4.art.) erantzukizun mugatuko kapitalak ezin du 3.000 euro baino gutxiagokoa izan eta baltzu anonimoan berriz ezin du 60.000 euro baino gutxiagokoa izan.

Gutxieneko kapitalaren funtzioa ez da ondare bat eraikitzea objektu sozialaren garapen egoki baterako. Alegia, legeak kapital minimo bat eskatzen du baina ez du eskatzen kapital horrek nahikoa izan behar duenik baltzuak hartuko dituen ekintzen arriskuaren aurrean. Hau dela eta, egun praktikan “infrakapitalizatuak” dauden baltzu asko topatzen ditugu.

Legeak ezartzen duen gutxieneko kapitalak eraketa unean garrantzia badu ere ondoren baltzuaren funtzioan ere eragina dauka, izan ere, baltzuak bere bizitza sozialean ezingo dute legeak ezarritako minimoen azpitik izan bere kapitala.

2- *Zehaztapen printzipioa*: (23.d art.) kapitalak estutuetan zehaztuta egon beharko du, baita zenbat akzio edo partizipazioetan dagoen banatua eta horien balore nominala edo mota.

3- *Osotasun printzipioa*: (78-79 artk.) kapitalak guztiz harpidetua egon beharko du baltzua eratu ahal izateko.

4- *Gutxieneko desenboltsaketa printzipioa*: (78-79 artk.) kapitala harpidetua egoteaz gain baltzu anonimoaren kasuan beharrezkoa izango da akzio bakoitzaren balore nominalaren laurdena ordaindua egotea. Ordainketa minimo honek akzio guztiei eragingo die. Erantzukizun mugatuko baltzuan ekarpena osorik egin beharko da eraketa unean.

5- *Errealitate printzipioa*: (59.1 eta 62 artk.) hartzekodunak babesteko helburuarekin legeak ez du uzten fikziozko kapitala duten baltzuak

eratzen. Hortaz, deusezak izango dira baltzura ondarezko ekarpenik egiten ez dituzten baltzuak.

6- *Egonkortasun printzipioa*: (296, 318 artk.) estatutuetan ezarritako kapitalaren zenbatekoa ezingo da aldatu gehituz edo murriztuz, salbu, legeak aurreikusitako bideen bitartez egiten bada.

7- *Kapitala babesteko legezko neurriak (gutxieneko egokitasuna)*:

- *Ez-diruzko ekarpenen balorazio sistema*: (67. art.) baltzu anonimoaren eraketa edo kapital hazkuntzetan diruzkoak ez diren ekarpenak adituek aztertu beharko dituzte.
- *Akzioak eta partizipazioak balio nominalaren azpitik igortzeko debekua*: (59.2. art.) ezingo dira partizipazioak sortu edota akzioak igorri euren balore nominalaren azpitik.
- *Obligaziozko erreserba*: (274. art.) irabazien %10 gutxienez legezko erreserbara zuzenduko da, kapitalaren %20ra iritsi arte.
- *Dibidendo banaketaren muga*: (273.2. art.) behin legeak edota estatutuak dioena beteta dibidendoak banatu daitezke soilik ondare netoaren balioa, banaketaren ondorioz, kapital soziala baino baxuagoa ez denean. Ondare netoa kapital soziala baina txikiagoa bada berriz, onurak galera hauek konpentsatzera bideratuko da.
- *Kapital murriztapenaren muga*: (334. art.) baltzu anonimoetako hartzekodunak dituzten kredituak kapital murrizpenaren erabakia baino lehen sortu badira eta horiek bermatu bitartean eskubidea izango dute murrizpenaren aurka agertzeko. Aldiz, kredituak bermatuak dituztenek ez dute aukera hori izango.
- *“Autocartera” delakoaren muga*: (134-148. artk.) kapitalezko baltzuak ezin dute bere akzio edo partizipaziorik harpidetu, ezta bere sozietate nagusiak jaulkitakoetarik ere; bestalde modu eratorrian egiten den eskuratzea baldintzatua eta mugatua dago, bai baltzu anonimoan (144-148. artk.) bai erantuzkizun mugatukoan (140-143. artk.). Baltzu batek bere akzio edo partizipazio propioak edukitzea

bere aktiboaren elementu bezala kapitalaren “ureztatzea” dakar (ekarpenak “itzuli” egiten dira prezioa ordaintzerakoan) eta arriskuan jartzen du kapitalak betetzen duen berme funtzioa¹.

1.3. Inskripzio eratzaileria

Kapitalezko baltzuak beste edozein merkataritzako baltzuk bezala, pertsona juridiko baten sorrera dakar. Honela, Kapitalezko Baltzuen Legeko 33. artikulua argi esaten du nortasun juridiko hori inskripzioarekin batera etorriko dela edozein izanda ere aukeratutako tipo soziala.

Hala ere, argitu beharra dago inskripzioaren ukanbeharra soilik guztizko eraketa edo eraketa plenoa lortzeko dela ezinbestezkoa. Hau da, legeak aurreikusten du, hirugarrenen babeserako, inskribatu gabeko baltzuen edo eraketan dauden baltzuen gaitasuna kanpoko harremanak izateko, hori bai bazkideek ez dute inskripziorik gabe erantzukizun mugatuaren “pribilegioa” lortuko.

2. KAPITALEZKO BALTZUEN ERAKETA

2.1. Eraketa sistema bikoitza

Kapitalezko baltzuen legeak baltzua eratzeko bi modu jasotzen ditu: *aldi bereko fundaketa eta ondoz ondoko fundaketa* (19. art.). Hala ere, aipatzekoa da erantzukizun mugatuko baltzua soilik lehengo fundakataren bitartez eratu daitekela.

A) Aldi bereko fundaketa (21.art.)

Aldi bereko fundaketak aurkezten duen sinpletasunagatik praktikan gehien (edo soilik) erabiltzen den eratze modua da. Eratze mota honetan

¹ Oso interesgarria arazo hau ulertzeko PAZ-ARESen artikulua: “Negocios sobre las propias acciones”, ALONSO UREBA (koord.), *La reforma del Derecho Español de sociedades de capital: reforma y adaptación de la legislación mercantil a la normativa comunitaria en materia de sociedades*, 1987.

fundatzaileak dira eskritura soziala egiletsi eta akzio edo partizipazio guztiak harpidetzen edo bereganatzen dituzten pertsonak. Honela, bazkide guztiek edo euren ordezkariak parte hartu beharko dute eskrituraren egilestean eta bere egin beharko dute egintza horretan akzio edo partizipazioetan zatitua dagoen kapitala.

Egun, lehen ez bezala, onartzen da baltzuaren eraketan pertsona bakar baten borondatea egotea (bazkide bakarreko baltzua, 12-17. artk.). Hau da, onartzen da pertsona bakar batek akzio guztiak harpidetu edo bereganatzea.

B) Ondoz ondoko fundaketa (41-45. art.)

Eratze sistema hau bereziki handiak eta oso irekiak diren baltzuentzat dago pentsatua, hots, baltzu anonimo irekientzat non ideia-erakundeek ez duten edo arriskatu nahi ez duten kapitala lortzeko hirugarrenen partaidetza eskatzen duten. Sustatzaile horiek jaulkipen proiektuaren berri eman behar diote Balore Merkatuko Nazio Batzordeari eta eratze egitaraua idatzi behar dute non, besteak beste, akzioak harpidetzeko epe eta baldintzak eta harpidedunek ordaindu beharreko dirua jasoko dituen kreditu-erakundea edo erakundeak aipatuko diren. Eratze-egitaraua eta informazio-liburuxka Merkataritzako Erregistroan utzi behar dira gordailuan eta sei hilabete pasa ondoren, sustatzaileek akzioen harpidedun guztiei dei egin behar diete batzar eratzailean parte har dezaten.

Prozedura guztia Balore Merkatuko Nazio Batzordearen kontrolpean dago. Kontrol hori eta prozeduraren konplexutasuna dira sistema hau ez erabilia izatearen arrazoia.

2.2. Eskrituraren eta estatutuen edukia

Legeak eskritura eta estatutoak desberdintzen ditu baltzu kontratoaren edukia jasotzerakoan eta doktrinak eztabaidatu du desberdintasun horrek eduki juridikorik duen ala ez. Honek garrantzia izan dezake bazkideek kontratoan jaso nahi dituzten klausulak non kokatu behar dituzten erabakitzerakoan, doktrinaren zati batek estatutoetan jasotzen dena gehiengoak aldatu dezakela

baina eskrituran jasotzen dena aldatzeko bazkide guztien adostasuna behar dela uste bait du².

Egia da estatutoak eskritura publikoaren zati bat osatzen dutela, non sortzen den pertsona juridikoaren antolakuntza jasotzen den eta baita bazkideen eskubide eta obligazioak. Horretaz gain eskrituran sozietatea eratzeko behar den negozioaren funtsezko elementuak jasoko dira.

- **Honakoak barneratuko dira kapitalezko baltzu ororen eraketa eskrituran** (22.art.): a) bazkidearen edo bazkideen identitatea; b) kapitalezko baltzua eratzeko borondatea; c) bazkide bakoitzak egiten dituen ekarpenak eta horiengatik jasotako akzio edo partizipazio kopurua; d) baltzuaren estatutuak eta; e) hasieran baltzuaren administrazioaz eta ordekaritzaz arduratzen direnen identitatea.

- **Honako eduki hauek jaso behar ditu kapitalezko baltzuen estatutu orok** (23.art.): a) baltzuaren deitura; b) objektu soziala, bera barneratzen duten jarduerak zehaztuz; c) egoitza soziala; d) kapital soziala, bera osatzen duten akzio edo partizipazioen kopurua eta euren balio nominala; e) administrazio organoaren egitura, f) organo kolegiatuak erabakiak hartzeko modua; horretaz gain, baltzu anonimoan (27. art) sustatzaileek eta fundatzaileek dituzten abantaila eta eskubide bereziak, baleude.

* **Esandako edukiez gain, eskrituran zein estatutuetan paktu askatasuna** dela eta bazkide fundatzaileek aurreikusten dituzten paktu zein baldintzak ezarri daitezke, beti ere, ez badira legearen edota aukeraturako tipo sozialaren printzipio konfiguratzaileen³ aurkakoak (28. art.).

Ez dira eskrituran jasoko, baino balioa izango dute, naiz eta mugatua, **itun parasozialak** edo **itun ixilak** (29. art.). Paktu hauek baltzuaren funtzionamenduari edo jarduerari buruzkoak izan daitezke, baina, ezingo dira hirugarrenen aurrean alegatu. Eduki desberdineko paktuak ezagutzen ditu praktikak, besteak beste botu sindikatuak, akzioak edo partizipazioak

² Eztabaidari buruz ikus FERNANDEZ DE LA GANDARA, *Derecho de Sociedades*, 317. o. edo sakonago, DUQUE, “Escritura, estatutos y límites a la libertad estatutaria en la fundación de sociedades anónimas”, ALONSO UREBA (koord.), *Derecho de Sociedades Anónimas I*, 1991, 30. o.

³ Hauek definitzeko zailtasunari buruz, ikus, URÍA, 837.o edo FERNANDEZ DE LA GANDARA, 326 o.

transmititzako mugak, sozietatean parte hartzeko edo lan egiteko baldintzak; oso garrantzitsuak dira beraien artean famili-protokoloak.

2.3. Eraketan dagoen baltzua eta baltzu irregularra

A) Eraketan dagoen baltzua

Eraketan dagoen baltzua deritzogu eskritura publikoan jaso denari baina oraindik erregistroan inskribatu gabe dagoenari. Sozietatea sortzen da bazkideen borondatez, esan dugu orokorrean ez dela beharrezkoa inskribatzea; inskripzio hori bai da eratzaillea, aldiz, kapitalezko sozietateak dakarren nortasun juridikoaren maila altuena lortzeko. Baina legeak onartzen du jarduera ekonomikoa bultzatzea inskripzio hori egin aurretik, behin eskrituran jaso denean bazkideen arteko akordioa (24. art.). Kasu hauetan bazkideek badute inskribatzeko borondatea baina ez dute itxoin nahi jarduerarekin hasteko. Epe horretarako legeak eraentza berezi bat aurrakusten du 36-38. artikuluetan, egindako kontratuekiko erantzukizuna finkatzeko.

Alde batetik 36. artikulok kontratuak egiten dituztenen *erantzukizun solidarioa* arautzen da. Modu honetan, eskrituran zehaztuko administratzaile edo ahaldun batek oraindik inskribatu gabeko baltzuaren izenean jarduten badu erantzukizuna soil-soilik berea izango da ondare sozialari inongo eraginik egin gabe.

Hala ere, ikusitako arau honek badu bere *salbuespena*. Izan ere, aipatutako *egintzak edo kontratuak inskripziora eta, bere kasuan, sozietateak egintzok bere gain hartzera baldintzatuak* (baldintza esekitzeaile bikoitza) geratu badira ez da emango erantzukizun pertsonal hori.

Aipatutakoaz gain, Legeak aurreikusten ditu *zenbait supostu* (37.1.art.) *zeinetan eraketan dagoen baltzuari gaitasun juridiko osoa aitortzen dion* obligatzeko eta trafikoan jarduteko. Kasu hauetan, erantzukizuna ez zaio jarduten duenari esleitzen baizik eraketan dagoen baltzuak duen ondareari.

Erantzukizun hau baltzua inskribatzeko nahitaezkoak diren egintza eta kontratuen (eskritura gastuak, inskribatzeko eskubidea Erregistroan...) gain eta eskrituran emandako ahalmen edo mandatuaren barnean egindakoen gain emango da. Ondare hori nahikoa ez denean bazkideek ere erantzun beharko dute zuzenean baltzuaren hartzekodunen aurrean, baina muga batekin: ordaindu gabeko kapitalararen mugarekin (37.2 art.).

Behin eraketan dagoen baltzua inskribatzen denean (38.art.), administratzaileen (edo mandatarien) eta bazkideen erantzukizuna desagertu egingo da. Sozietatearen ondarea, inskribatzeko nahitaezko diren egintzekiko gastuak gehituta, kapital kopurua baino txikiagoa bada, bazkideek estali beharko dute zenbateko bi horien arteko diferentzia ekarpen berriekin.

B) Baltzu irregularra

Legeak ezartzen duenez kapitalezko baltzuak nortasun juridikoa lortzen du Merkataritzako Erregistroan inskribatzen denean (33. art.) eta inskribatzen ez bada baltzu irregular baten aurrean gaudela adierazten du (39. art.).

Baltzu irregularra trafikoan kapitalezko baltzu bezala agertzen den baltzua (deitura hau erabiliz) da, baina Erregistroan inskribatu ez dena bazkideek nahi ez dutelako (eraketan dagoen baltzuarekin gertatzen ez dena).

Irregularitasuna dagoen ala ez erabakitzeke Legeak *bi irizpide* ematen ditu (39.art.): bazkideen ez inskribatzeko borondatea ziurtatzea edo eskritura egin zenetik urte beteko epean inskripziorik ez eskatzea.

Irizpide horien bitartez baltzu irregular batean aurrean gaudela frogatzen bada, Legeak edozein bazkideri desegitea eskatzeko eskubidea aitortzen dio (40. art.). Bestalde, kontuan hartuz baltzu irregularrak trafikoan jardun dezakeela, Legeak baltzuak trafikoan jarduten jarraitzen badu baltzu kolektiboaren edo baltzu zibilaren (jardueraren arabera) eraentza aplikatuko dela dio eta honekin batera bazkideen erantzukizun pertsonal eta mugagabea.

2.4. Baltzuaren deuseztasuna

Teoria orokorra ikusterakoan esan da baltzu kontratua deuseza dela *kontratuaren funtsezko elementuren (kontsentimendua, objektua eta kausa) batean akatsa* dagoenean. Kapitalezko baltzua inskribatzen denean notario zein erregistratzaileek ezarritako kontroletik pasatzen da eta oso zaila da inskribatzea aipatutako akatsak izanik, baina horrela gertatuko balitz inskripzioak ez du akatsik konpontzen, hori bai deuseztasuna epaileak deklaratu beharko du.

Legeak deuseztasun kausa zerrenda itxi bat jasotzen du 56. artikuluan: a) eraketa egintzan beharrezko borondatea ez agertzea fundatzailearen partetik, baltzu unipertsonala denean, edo gutxienez bi fundatzaileen partetik, fundatzaile bat baino gehiago direnean; b) bazkide fundatzaile guztien ezgaitasuna; c) eraketa eskrituran bazkideen ekarpenak ez agertzea; d) estatutuetan baltzuaren deitura ez agertzea; e) estatutuetan objektu soziala zein den ez agertzea edo objektu hori legezko kontrakoa edo orden publikoaren kontrakoa izatea; f) estatutuetan kapital soziala zein den eta bazkideek egindako ekarpenak zeintzu diren ez agertzea; g) kapital sozial guztia (EMB-S.L.) edo gutxieneakoa (B.A.-S.A.) ez desboltsatzeagatik.

Esan bezala, ikusitako kausak emanez gero deuseztasuna deklaratu da, baina beti erabaki judicial baten bitartez. Baltzuaren izenean harreman juridiko eta ekonomikoak sortu direnean hirugarrenen interes eta eskubideak jokuan egongo dira deuseztasuna deklaratzekoan, horrexegatik deklarazio horren ondorioak ez dira obligazioen teoria orokorrak jasotzen dituenak. Honela deuseztasun kausak desegite kausa bezala jokatzen du eta kitapen prozedura irekitzen du. Efektuak beraz *ex nunc* dira, etorkizunera begira, eta sozietateak hirugarrekin dituen obligazio eta kredituak baliozkotasuna mantenduko dute, kitapen prozeduraren buruzko arauen mende geratuz (57.art.).

Legeak ezartzen duen arauaren helburua azken batean trafikoaren segurtasuna eta deuseza den baltzu batekin kontratatzen duten hirugarrenen babesa da.

2.5. Ekarpinak

Kapitalezko baltzua eratzeko beharrezkoa da kapital sozial guztia harpidetua edo bereganatua izatea eta baltzu anonimoan gutxienez akzioen balore nominalaren laurden bat edo erantzukizun mugatua baltzuan partizipazioen balore osoa desboltsatzea. Desboltsatze hori bazkideek baltzura ekonomikoki baloragarriak diren dirua edo bestelako ondasunak (ondasun higigarri edo higiezinak, eskubide erreal eta kredituzkoak, patente edo marka eskubideak, enpresa, bezeroak...) ekarriz egiten da (58.art.). Modu honetan, bazkideek egindako ekarpena ondare sozialaren parte izatera pasatzen da. Legeak baltzu pertsonalistetan ez bezala, espreski, baztertu egiten ditu lan edo zerbitzu prestazioak ekarpenaren objektu bezala (58.2.art.).

Kapitalezko baltzuetan garrantzi handia dauka ondare sozialak hau baita hirugarrenei babesa ematen dien elementu bakarra. Horregatik, legea nahiko zorrotza da bazkideek egin behar dituzten ekarpenen inguruan, izan ere, ekidin egin nahi dira kapital puztuegiarekin edo gezurrezko kapitalarekin eratzen diren baltzuak.

Bazkideek ekarpenak egiten dituztenean orohar baltzuari dagokion ondasun edo eskubidearen titulartasun osoa eskualdatzen diote, hots, jabetza eskualdatzen da (60.art. / *quoad dominiun* egindako ekarpenak). Baina Legeak onartzen du erabilera bakarrik eskualdatzea (*quoad usum* egindako ekarpenak).

Ekarpinak duten objektuaren arabera, *diruzkoak* edo *ez-diruzkoak* izan daitezke:

* Diruzko ekarkinak

Diruzko ekarpenak gehien ematen direnak dira eta objektutzat dirua daukate. Diru hori eurotan ezarri beharko da eta beste txapon mota batean ezartzen bada eurotan duen balioa zenbatekoa den adieraziko da (61. art.).

Diruzko ekarpenak modu egokian ematen direla ziurtatzeko eta honela kapital sozialean integratzen direla baieztatzeko, Legeak ezartzen du beharrezkoa izango dela eratzeko eskritura edo kapital sozialaren gehitzea bahimendu zuen notarioaren aurrean egitea ekarpena bera edo notariari dagokion ziurtagiria ematea (62. art.).

Bazkide fundatzaile guztiek izango dute erantzukizun solidarioa ekarpenen hauen errealitateagatik (30.art.).

* **Ez-diruzko ekarkinak**

Aurretiaz esan bezala, diruaz gain ekonomikoki baloragarriak diren bestelako ekarpenak ere egin ditzakete bazkideek.

Ez diruzko ekarpenen erregulazioa ez da bera baltzu anonimo eta erantzukizun mugatuko baltzuetan.

- **Baltzu anonimoa**

Diruzkoak ez diren ekarpenak bereziki korapilatsuak dira euren balorazioa egiterako unean, izan ere, beharrezko da ekonomikoki baloratzea modu seguru eta objektibo batean. Arrazoi hau medio Legeak balorazio sistema oso zorrotz bat ezarri du esanez beharrezkoa izango dela Erregistratzaileak izendatutako aditu batek edo batzuk txosten perizial bat egitea egindako ekarpenaren inguruan (67.art.). Noski, adituak baltzutik at dauden pertsonak izan behar dute balorazio objektibo bat lortu nahi bada.

Bestalde, diruzkoak ez diren ekarpenei buruzko erantzukizuna jasotzen du Legeak hurrengo artikuluetan:

* *Higigarri, higiezinen edo horiei atxikitako eskubideen ekarpena (64.art.):* kasu honetan ekarpena egiten duenak ondasunen entrega egiteko eta horien saneamendua burutzeko obligazioa dauka.

* *Kreditu eskubide bat denean ekarpenaren objektu (65.art.):* ekarpena egin duena kreditu eskubidearen legitimitatearen eta zordunaren kaudimenaren erantzule izango da.

* *Enpresa edo establezimenduen ekarpena (66.art.):* ekarpen hori egin duenak enpresa edo establezimendu osoa saneatzeko obligazioa du, baldin akatsak edo ebikzioak establezimendu horren osotasuna edo ustiapenerako oinarrizkoak diren elementuak ukitzen baditu. Balio garrantzitsua duten osagaiak banan-banan saneatu behar dira.

Legeak 72. artikuluan *kostu bidezko eskuraketak* arautzen ditu. Batzar orokorrak aldez aurretik onetsi behar ditu baltzuak eratzen denetik bi urteko epean kostu bidez egindako ondare-eskuraketak, baldin eta eskuraketa horien zenbatekoak kapitalaren hamarrena gainditzen badu. Arau honen helburua, batik bat, ezkutuko ez-diruzko ekarpenak eragozte da. Bazkideek ahalko lukete bi negozio simulatuz, diruzko ekarpen bat eta gero ekarri nahi den ondasunaren salerosketa, ez-diruzko ekarpen bat egin aipatutako (67. art.) adituaren kontrolik gabe. Hau eragozteko, esan bezala, kontrol neurri batzuk hartzen dira Legean: Batzarrak onetsi behar ditu eragiketa horiek eta erabaki hori hartzeko administratzaileek zein aditu batek edo gehiagok eginiko *txostena* eskuragarri jarriko zaie akziodunei (72.2. art.).

Legeak dioenez, aipatutako *kontroletik at geratuko* dira eragiketa arruntak eta burtsan edo enkante publikoan egindakoak (72.3. art.).

- Erantzukizun mugatuko baltzua

Baltzu mota honen kasuan ez-diruzko ekarpenen balorazioa ez da derrigorrez “kanpotik” kontrolatu behar, hau da, ez da derrigorrezkoa aditu independente baten balorazio txostena. Legeak 73.1. artikuluan jasotzen duena da bazkide guztien erantzukizun solidarioa eginiko balorazioagatik. Erantzukizuna eskatzeko akzioaren preskripzio epea bost urteko da eta legitimazio aktiboa, baltzuari, aurka azaldu diren bazkideei eta hartzekodunei (kaudimengazia kasuetan) dagokie. Adituek balioesten badituzte ez-diruzko ekarpenak, ekarpen horiek egin dituzten bazkideek ez dute erantzukizun solidariarik izango (76. art.).

2.6. Erantsitako prestazioak

Bazkideek derrigorrez egin behar dituzten ekarpen sozialaz gain estatutuetan jaso daitezke bazkide baten edo batzuen gain bestelako obligazio batzuk, hots, erantsitako prestazioak (86.1 art.).

Erantsitako prestazioen *edukiari dagokionez*, edozein motatako obligazioa (KZ 1088. art.) izan daiteke objektua. Honela, emateko, egiteko edota ez egiteko prestazioak izan daitezke. Adibidez: baltzuari finantziazioa eskeini, ondasun lagapena eskeini, lan prestazioak, lehiaketa ez egiteko obligazioa... Prestazio horien eduki zehatza adierazi behar da, bai eta horiek dohainekoak edo ordainduak izan behar diren ere eta azkenik ez betetzeagatiko klausula penalak, horrelakorik balego.

Edukiak zehatza izan behar du. Ez dira klausula orokorrak onartzen argi finkatzen ez bada noraino iristen den bazkideen konpromezua.

Erantsitako prestazioen *ezaugarririk garrantzitsuena* da ezin direla baltzuaren kapitalean barneratu (86.2 art.). Beraz, erantsitako prestazioen edukia edozein izanda ere prestazio horiek egiten dituen bazkideak ez du akzio edo partizipaziorik jasoko. Bestalde, hitzak berak dioen bezala prestazio hauek erantsiak eta ondorioz, bazkideek bakarrik hartu ditzakete obligazio hau ekarpenak egiteko obligazioari erantsita, pertsonalki edo partizipazio edo akzioari lotuta.

Ordainketari dagokionean, erantsitako prestazioak ordainduak badira estatutuek zehaztu beharko dute zein den prestazio horien truk bazkideek jaso behar duten konpentsazioa, ezin izango dena inola ere prestazioaren balioa baino handiago izan (87.art.). Honela dibidendoak modu izkutuan banantzea galerazi nahi da.

Erantsitako prestazioak emateko betebeharrak pertsonala duen bazkide baten akzio edo partizipazioak borondatez eskualdatzeko sozietatearen aurretiazko baimena behar da, baita prestazio hori barneratzen duten akzio edo partizipazio jakinak eskualdatzeko ere (estatutuetan bestelakorik esaten ez denean batzar orokorra bahimena beharko da erantzunkizun mugatuko batzuetan eta administratzaileen bahimena baltzu anonimoetan - 88. art.).

Erantsitako prestazioak egiteko *obligazioaren sortzapena, aldaketa edo desagertzea* emateko estatutuen aldaketa emateko aurreikusitako baldintzak eman beharko dira, obligatu bakoitzaren adostasunarekin (89.art. / 346.1.d). art.).

Azkenik, aipatzekoa da erantsitako obligazioen ez betetzea bazkidea kanporatzeko kausa izan daitekeela. Hala ere, erabaki hori hartzeko beharrezkoa izango da ezbetetzea borondatezkoa izatea. Hau da, bazkideari ezin bazaio leporatu ez betetzea ez du bazkide izaera galduko (89.2. art. / E.B.MA-n 350. art.).